

B

BARREN

TOKIKOM

Aurkezpena
GAUR, 19:00etan,
Kultur Etxe
aurrian



Asto-kaka

BARRENen

aldeko jokoa



SUMMER

Uda



Kensington Elgoibar
C/ San Ignacio 4
Telf. 943 74 02 36
idiomas@kensington-sles

IKASFUN

Data 2011-07-01etik 2011-07-29ra

- ▶ Egunak: astelehenetik ostiralera
- ▶ Hizkuntza: ingelesa
- ▶ Adina: 1999-2005
- ▶ Ekintzak: hiru orduko aisialdia ingelesez, jokoak, irteerak, kirolak, multimediarekin jarduerak...
- ▶ Talde murriztuak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 2 ordu: 200 €
 - Egunean 3 ordu: 250 €
 - Egunean 4 ordu: 300 €



IKASTARO TRINKOAK

Data 2011-07-01etik 2011-07-30era

- ▶ Egunak: astelehenetik ostiralera
- ▶ Hizkuntza: ingelesa
- ▶ Talde murriztuak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 1 ordu: 200 €
 - Egunean 2 ordu: 350 €
 - Egunean 3 ordu: 475 €

Data 2011-07-01etik 2011-07-15era

- ▶ Gazteak
- ▶ Goi mailako moduloak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 1 ordu: 120 €
 - Egunean 2 ordu: 240 €
 - Egunean 3 ordu: 360 €

UDAKO IKASTAROAK

- Egunean 2 eta 3 ordu
- Mailak
- Asteakako izenemateak
- Kurtso modularrak 1-2-1
- Gutxienez 10 ordu
- Matrikula ordaindu beharrik gabe

Alzolako Urak bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.

Jai zoriontsuak



www.Alzola.com



Iñigo
Lazkano

Ailegatu jaku berriz ere pulpito honetatik gure *sermoia* botatzeko ordua.

Orainguan Trinidadieri buruz hitz egiteko goguakin nago, bixar hasiko dira-eta. Honekin 53.

edizua izango da, eta, nahiz eta, errez esaten dan, ez zan hain erreza

izango urte horietan danetan bihar adinako aurrekontua batzia, jaixak aurrera eramateko. Ez da oso polita gertatzen jaixak egiteko dirua bihar dala esatia, romantizismo dana kentzen baitio asuntuari, baiña azken fiñian, egixa da. Iñork, edo oso-oso jende gutxik, egitten ditte gauzak hutsaren truke, eta jaixekin ere holaxe izaten da. Ondorioz, baten batzuek majo mobittu bihar izaten dira, herriko taberna, denda, enpresa, udaletzeko, etabarreko atia jo, eta lehengo prailiak bezela, gizarajo arpegixa ipinixaz limosnia eskatzen. Ni neu ere zeregin horietan ibilli zaharra ez naiz.

izango urte horietan danetan bihar adinako aurrekontua batzia, jaixak aurrera eramateko. Ez da oso polita gertatzen jaixak egiteko dirua bihar dala esatia, romantizismo dana kentzen baitio asuntuari, baiña azken fiñian, egixa da. Iñork, edo oso-oso jende gutxik, egitten ditte gauzak hutsaren truke, eta jaixekin ere holaxe izaten da. Ondorioz, baten batzuek majo mobittu bihar izaten dira, herriko taberna, denda, enpresa, udaletzeko, etabarreko atia jo, eta lehengo prailiak bezela, gizarajo arpegixa ipinixaz limosnia eskatzen. Ni neu ere zeregin horietan ibilli zaharra ez naiz.

“Jaixak lapurtu dizkigutela

pentsatzen duanik ere badago Mendaron”

Bestalde, ikusten da gure jaixak arrakasta haundixa izaten ari dirala atzerrixan. Elgoibar aldiaren ere, itxuria danez, indar haundixa hartu debe juandaneko urte batzuetatik hona, eta tanborrada elegante batekin apainduta, giro polita izaten omen da. Baiña Mendaro aldiaren ez dira danak gustura egoera honekin. Jaixak lapurtu dizkigutela pentsatzen dabarik ere badago, holaxe esan zidan eta. Nik erantzun nion hori lapurreta bat bezela ez hartzeko, Mendarok munduari egindako ekarpen bat bezela baizik, exportatu egin genduzela jaixak! Baiña, honi ere laster topatu zion pegia: *Copyright*-a ez genduala kobratu! Ni prisaka nabilen, eta moztia nahi nuanez, elkarrizketia amaittu naban, zor hori kittatzeko, zapatuan boluntario juango nintzala esanez. Beste errekadu pare bat ere banakazela egiteko Elgoibarren, eta biajia aprobetxatuaz ba...



Anjel
Bazterretxea


Iñigo: Trinitadeko jaixei buruz hitz egin dezu. Trinitadeko jaixak, Mendaron aspalditik ospatzen diranak, ilusioz eta ganoraz ospatzen dira Mendarozabal auzoan. Badakizu, oraindik ekin-tzarik nagusixenetako bat mezia izaten da, kantuz eta sermoiez egindako mezia. Aspaldi baten, Trinitate jai honetara, Debatik etorri zan abade sermoilarixa. Eta gizarajoak nahikua lan izan zaban, gure Jaungoikoaren izatia nolakua zen esplikatzeko. Badakizu, gure doktriña zaharrean, Jaungoiko bakarra hiru pertsonetan osatzen dala. Eta sermolari guztientzat ez da erreza izaten jendiari doktriña santu hori adierazitia. Hiru pertsona, Jaungoiko bakarra eta abar misteriozkoa.

Meza nagusixa amaitu zan, eta sermoilarixa bazkaltzera inbitatu zeben, bere lagun baten etxera. Eta bazkaltzen zeudela, abadiak galdetu zien mahaikoei ea ulertu zeben sermoia. Eta mahixan zaganbategen esan zion: Zure sermoia ez da errez ulertzekua. Bat, hiru, Jaungoiko bakarra... Baiña gure etxian hilerok pasatzen jakuna ulrtzea ez da errezagoa: Nik 3.000 pezeta irabasten ditut hilian, eta nere emaztiak 4.000 gastatzen ditte. Hori bai dala ulertu ezin daitekeen misterio! Horrelako zenbat korapilo dauzkagun gure moduko pobriak!

“Ahaztu ditzagun Trinitate santuak sortu zittuan arazo teologikuak”

Ah, elgobartarrei galdera bat egin nahi diuet: Nun hasi ziran Trinitadeko jaixa ospatzen lehenengo aldiz? Bateren bati entzun nion Elgoibarko Trinitadeko jaixak Mendarokuen atzetik etorri zirala. Hori horrela balitz, Mendaro inportantiagoa al zan Elgoibar baiño? Ahaztu ditzagun Trinitate santuak sortu zittuan arazo teologikuak, eta berak argi ditzala hamen ditzugun korapiluak.

Ondo bizi, eta Trinitadeko jarrai dezala gure korapiloak eskatzen.



ESKERTZA

PAULINA LASA ENPARAN

2011ko ekainaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UENLA



MENDAKO UDALA



ARE, ARE ET ALI



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Elgoibar bi erroberatan': eskerrik asko guztioi!

Pasa den domekan, ekainaren 12an, *Elgoibar bi erroberatan* txirrindu-festa ospatu genuen, eta oso pozik gaude izan genuen arrakastarekin.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu arrakasta hori lortzen lagundu diguzuen guztioi. Parte hartu zenuten guztioi, antolakuntza-lanetan jardun zenutenoi, eta laguntzaileei: Elgoibar-ko Udala eta Udaltzaingoa, Elgoibar Txirrin-dulari Elkarteak, Elgoibarko Gurutze Gorria, Nava inprimategia, Beristain logistika banaketa, Lanbroa taberna eta Baltasar elkarteak.

Era berean, barkamenak eskatu dizkiogu Foruen plazako tabernariei gure ekitaldia dela eta sortutako endredoengatik.

Kalamua, Herri Eskolako gurasoen elkarteak ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Sigma auzoko zonalde honetan eskailera gehiegi dago: "Oran dela hamar urte berri zuten ingurune hau, eta ez dugu ulertzen zergatik jarri zituzten hainbeste eskailera. Umeen aulkiarekin ibiltzeko arazo handiak ditugu, eta eskertuko genuke aldapatxoren bat jartzea. Behin baino gehiagotan egin dugu eskaera, baina inork ez digu kasurik egiten. Eskertuko genuke gure beharrak aintzat hartzea".



Pedro Muguruzako parkea egoera tamalgarrian dago: "Pedro Muguruza kaleko parkea ez dute zaintzen, eta azken urteotan egoera tamalgarrian dago. Elgoibarren gero eta ume gehiago dago, eta parke hori berri beharra dagoela iruditzen zaigu. Auzotarrek, behintzat, eskertuko genuke. Herriko beste parke batzuk txukundu dituzte, eta gure auzokoak ere badauka berritzeko beharra".



Txalo bat joan zen asteko kale antzerkia antolatatu zutenei: "Ez naiz txalotzen edo kexatzen ibiltzen den horietakoa, baina oraingo honetan, txalo bat eman nahi diet joan zen astean kale antzerkia egin zutenei. Giro bikaina jarri zuten, eta hori txalotzekoa da. Badakit herrira zer ekarri pentsatzen ibiltzen direnen lana ez dela erraza, baina oraingoan asmatu zuten".



Zuen kexak, galderek edo txaloak bidaltzeko:
barreneigoibarkoizarra.com 943 744 112

ESKERTZA



FRANCISCO SARRIUGARTE GARITAONANDIA

2011ko ekainaren 15ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 · 3. soltoa 943 74 38 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRITATZEAK - PINTAKETA



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

ASTO-KAKA

KAKA NON, SARIA HAN

BARREN komunikazio-proiektua diruz laguntzeko Asto-kaka jokoa antolatu du Elgoibarko Izarrak, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu jokoa parte hartzera. Iazko *Ni ere banaiz BARREN* kanpainaren haritik dator Asto-kaka; izan ere, BARREN astekariaren urteko defizitari aurre egitea da ekimen honen helburua. Jokoa bera urriaren 15ean izango da, baina aurkezpena gaur arratsaldean egingo dugu, 19:00etan, Kultur Etxe aurrean, eta herritar guztiak zaudete ekitaldira gonbidatuta. Herriak BARREN behar duelako, eta BARRENEK herritarren beharra duelako.

Ainhoa Andonegi

Joko berezia eta bitxia prestatu dugu oraingo honetan BARREN astekariarentzat dirua biltzeko: Asto-kaka. Plaza Txikia 5.000 laukitotan banatuko dugu, eta laukitxo bakoitzari zenbaki bat jarriko diogu.

Laukitxo bakoitzak bere jabea izango du, eta asto-gorotza jausten den laukitxoaren jabea izango da irabazlea. Laukitxoak erosteko 5.000 txartel jarriko ditugu salgai, bakoitza 3 eurotan. Zenbat eta gehiago erosi, orduan eta aukera gehiago izango da asto-gorotza zure txartelari dagokion zenbakian jausteko.





5.000 txartel salduko ditugu, 3 eurotan bakoitza.

Txartelak erosteko lehenengo aukera gaur arratsaldean izango da, aurkezpen ekitaldian bertan. Hala ere, gaur Kultur Etxe aurrera inguratzerik ez duzuenontzat, badaude txartelak erosteko beste modu batzuk:

- Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen edo BARRENEKO erre-dakzioan salgai daude dagoeneko.
- Telefonoz, 943 741 626 telefonora deituta.
- Webgunetik: www.elgoibarkoizarra.com/astokaka helbi-dean sartu eta han aurkituko duzuen formularioa beteta.

Horrez gain, gaurtik urrira bitartean kale-salmenta ere egingo dugu. Bihar bertan, Nafarroa Plazan jarriko dugu txartelak erosteko postua.

Bi asto, bi sari

Akei baserriko bi asto aterako ditugu plazaren erdira, eta astoek kaka noiz egingo zain egongo gera. Astoak banaka irtengo dira plazara, eta bakoitzak sari bat emango du. Lehenengo astoak bigarren saria emango du, eta bigarren astoak emango du sari nagusia. Asto bakoitzaren lehendabiziko kaka hartuko da kontuan saria banatzeko. Jokoa garbia izan dadin, hiru epaile egongo dira ekitaldian, eta kaka zein laukitxotan erori den erabakitze-ko zalantzarik balego, haiek hartuko lukete azken erabakia.

Saria esku dirutan emango dugu: lehenengo saria 2.000 euroko txekoa izango da, eta bigarrena 1.000 eurokoa.

Aurkezpena gaur, 19:00etan, Kultur Etxe aurrean

Jokoa bera urriaren 15ean egingo dugu, baina aurkezpen ekitaldia gaur arratsaldean izango da Kultur Etxe aurrean, eta herritar guztiak gonbidatuta zaudete. Taupada antzerki taldeak prestatutako antzezlan batekin azalduko dugu Asto-kaka jokoa, eta ondoren, Mikel Olaizola bertsolari elgoibartarrak Asto-kakari egin dion abestia kantatuko dugu denon artean. Amaitzeko, mokadutxo txiki bat izango da.

Asto-kakaren kanta

Doinua: Furra-furra

Zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?

*Bi belarriak luze,
irri bat hortzetan,
belar artean lasai
Akeiko larretan.*

*Buztana astinduz
eta arrantzaka,
Mimik ardura gabe
egiten du kaka.*

Zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?

*Ostiralak pozarren
astotxoan zita,
antiojoak jantzita
irakurriz Barren.*

*Zuri-beltzak, ilunak,
zebrak, grisak denak,
kumeak zein zaharrenak
Barrenen lagunak.*

Zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?

*Hala ere oraingoan
Mimiren gorotzak,
usain txarra du baina
urrezko bihotza.*

*Barreni lagunduz
elkartasun bila,
banatu behar digu
kriston euro pila.*

Zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?

*Mimik arre, guk barre,
irrika pozarren;
guztiok zerbait jarriz
irabazle Barren.*

*Beraz, Mimik bezala,
denok alez ale,
oihu egin dezagun:
gu Barrenen alde!*

Zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?

MIKEL OLAIZOLA

EAJ alderdiko Alfredo Etxeberria izango da Elgoibarko alkatea datorren legealdian

Mendaron, Bilduko Sonia Garziak gehiengo osoarekin aginduko du

Zapatuan egin zuten alkatea aukeratzeko osoko bilkura. Ainhoa Mendibilek (Bildu) eta Ovidio Campellok (PSE-EE) osatu zuten adinekoen mahaia, eta ondoren, alkatea aukeratzeko bozketa egin zuten. Alfredo Etxeberriak (EAJ) eta Jose Luis Ibartzabalek (Bildu) zazpina boto jaso zituzten, baina EAJ izan zenez Udal Hauteskundeetan boto gehien jaso zituen alderdia, Alfredo Etxeberria izango da alkate. Ovidio Campello alderdi sozialistako zinegotziak bi boto jaso zituen, eta PPko Javier Nuñezek boto bat.

Hala ere, 17 zinegotziek emandako botoen emaitza ikusi arte, ez zen argitu alkatearen izena. Izan ere, ahoz aho zebilen zurrumurru batek indarra hartu zuen osoko bilkuraren bezperan: Lasarte-Oriako Udalaren gertatu zitekeenak Elgoibarko Udalaren osaketan ondorio zuzenak izan zitezakeela zioten zurrumurruek. Alegia, Elgoibarko PSE-EE alderdiko bi zinegotziek Bilduko alkategaiari emango zizkiotela botoak, eta, honenbestez alkatetza. Azkenean, baina, Ovidio Campellori, eman zioten botoa alderdi sozialistako zinegotziek.



Sonia Garzia, Mendaroko alkate

Bilduk gehiengo osoarekin irabazi zituen maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeak Mendaron, eta, ondorioz, Sonia Garzia izango da alkatea datorren legealdian. Zortzi zinegotziek kargua hartu ondoren, egin zuten alkatea aukeratzeko bozketa, eta alderdi bakoitzak bere hautagaia babestu zuen: bost boto jaso zituen Bilduko alkategaiak (Sonia Garzia), hiru EAJkoak (Irene Berasaluze) eta bat PSE-EEkoak (Jose Antonio Rodriguez).



Lekua **Udaltzaingoa**



Udaltzaingoa lekuz aldatu dute. Udaletxeko lokala utzi, eta Errosario kalera mugitu dira, Kultur Etxe parera. Aurrerarantzean, beraz, udaltzainen beharra duen orok lokal berrira joan beharko du. Lokal berriak bi solairu ditu: Beheko solairuan udaltzaintzako aldagelak daude, eta goiko aldean harrera, udaltzain-buruaren bulegoa, salaketak jartzeko bulegoa, komuna eta erabilera anitzeko gela bat. Elgoibarko udaltzaingoa ondorengoek osatzen dute: udaltzain-burua, lau kabo, hamazazpi udaltzain eta administrari bat. Udaltzain zerbitzua astean zazpi egunez eta 24 orduz eskaintzen dute. Lehengo lokalean alderdi politikoentzako gelak egin dituzte.

Irudia **Ohorezko matrikulak**

Amaitu dute ikasturtea Elgoibarko BH Institutoan, eta urtero bezala banatu dituzte ohorezko matrikulak. Aurten bost neskek jaso dute: Maria Ferreiro, Amaia Belza, Miren Goenaga, Cristina Arizmendiarieta eta Leire Sorazu.



IMH sariak banatuko dituzte eguenean, ekainaren 23an

Datorren eguenean banatuko dituzte IMH sariak, lanbide heziketari aitortza egiteko helburuarekin. Ekintzailetasuna, berrikuntza, nazioartekotzea edota enpresa eta lankideekiko konpromisoa bezalako balioetan nabarmendu diren ikasle ohiei esker ona adierazteko baliatuko dituzte IMH sariak. Ikasketak aurten amaituko dituen ikasle aipagarrienak, eta fabrikazioko ikasle onenak 800 euroko ikasketa-poltsa bana eskuratuko dute. Elgoibarko ikasle onenari, bestalde, IMHko prestakuntza iraunkorreko elearning ikastaroak doan egiteko beka emango diote. Sari banaketan IMHrekin elkarlanean diharduten enpresa babesle eta kolaboratzaileez gain, Elgoibarko Udalak, Hezkuntza Sailak eta AFMko ordezkariak hartuko dute parte. Ekitaldia 12:00etan hasiko da.

Arnaldo Otegiren aldeko mahaia jarriko dute, bihar

Arnaldo askatu, politika askatu plataformak Otegiren aldeko mahaia jarriko du bihar, Nafarroa Plazan. Otegiren aldeko sinadurak batuko dituzte, eta kmistean ere jarriko dituzte salgai. Horrez gain, hemendik aurrerako ekimenen berri emango dute, eta sorpresaren bat ere egongo dela aurreratu dute.

Ekainaren 23an hasiko dira Altolako San Juan jaiak

Ekainaren 23an hasiko dituzte San Juan jaiak Altolan. Eguenetik domekara arteko jaiak prestatu dituzte, eta ekintzen artean aipagarriena Deba ibaian egiten den San Juan sua da. Ekainaren 23an egingo dute, San Juan bezperan, 23:00etatik aurrera. Horrez gain, dantzaldiak, umeentzako jolasak, herri kirolak eta musika ere ez dira faltako. San Juan jaietako egitarau osoa agendan.

JOSEAN GOMEZ

MINTZA EGUNEAN SARITUA

“Ohore bat izan da
Mintza Eguneko
saria jasotzea”

Josean Gomez 32 urterekin hasi zen euskara ikasten. Bere borondatez joan zen euskaltegira, euskara ikasi nahi zuelako, eta hori izan da, bere ustez, hizkuntza ikasteko gakoa. Erdal giroan hazitakoa da Josean, baina gaur, eguneroko bizimoduan erabiltzen du euskara, bere lehenengo hizkuntza izango balitz moduan, eta gainera, euskara ikasten diharduen jendeari laguntzen dio Elgoibarko Izarraren *Tertuliak* egitasmoan. Euskaldun berri izatetik, euskaldun zahar izatera pasatu da, eta horregatik jaso du errekonozimendua Mintza Praktika egitasmoaren barruan. Elizondon jaso zuen saria, Mintza Egunean.

Nola hartu duzu Mintza Praktika egitasmoaren barruan eman dizuten saria?

Sorpresa izan zen niretzat. Elgoibarko Izarratik abisatu zidaten nire izena eman zutela esanez, baina aukeratzea nahiko zaila izaten da, eta ez nuen espero antolatzaileek baietz esango zutenik. Aukeratuetakoa bat izan nintzela esan zidatenean sorpresa handia eta atsegina hartu nuen. Oso pozik jarri nintzen. Egun batzuk urduri samar pasatu nituen, baina nahiko ausarta naiz, eta ez naizenez lotsatzen, lasai igo nintzen saria jasotzera. Gainera, hitz batzuk ere esan nituen, eta gustura geratu nintzen. Jende guztia txaloka hasi zen, eta polita izan zen. Ohore bat izan da niretzat.

“Euskara ikasteko garrantzitsuena lotsa galtzea eta hitz egitea da”

Elizondon izan zen Mintza Eguna. Zer moduz pasatu zenuten?

Oso ondo. Urtero joaten gara, eta oso ondo pasatzen dugu. Antolatzaileek oso ondo egiten dituzte gauzak. Aurten Elizondon izan da, baina urtero aldatzen dute lekuz. Iaz Arrasaten, eta Donostian eta Gasteizen ere izan da. Egunen batean, akaso, Elgoibarren egingo dute!

Noiz eta nola hasi zinen euskara ikasten?

32 urterekin hasi nintzen euskara ikasten. Egia esateko, berandu, baina nire borondatez joan nintzen euskaltegira, inork behartu gabe eta hori oso inportantea da. Nik dena gaztekeraz ikasi nuen. Euskara ikasgai bezala eduki nuen, baina urtero gauza bera ematen genuen, eta ez genuen gauza handirik ikasten. Garai hartan ikusten nuen etorkizuna nolakoa izango zen, eta banekien nire umeak txikitatik hasiko zirela euskara ikasten. Nik haiekin euskaraz hitz egin nahi nuen. Hitz solte batzuk ezagutzen nituen, eta esaldi batzuk esateko gai nintzen, baina ez zen berba egiteko nahikoa. Hori alde batetik, baina bestetik, Elgoibarren euskaraz egiten da, eta jendearekin euskarazko harremana eduki nahi nuen. Era berean, irratia, telebista edota libu-

ruak euskaraz ulertzeko gaitasuna nahi nuen. **Udaletxean egiten duzu lan. Euskara beharrezkoa duzu lanerako?**

Brigadan hasi nintzen lanean, eta horretarako eskatzen zuten euskara maila baneukan. Orain nagoen posturako behar da euskara, baina hor sartu nintzenerako baneukan maila hori. Jendea begirako lanetan beharrezkoa da eusakara jakitea. Zatarra da euskaraz hitz egiten dizun bati ez duzula ulertzen esatea. Oro har, administrazioan lan egiten duen jendeak egiten du euskara ikasteko ahalegina. Borondatez eta norberak nahi duelako hasten denak ikasten du euskara. Aldiz, euskara ikastera behartuta joaten denak ez du ikasten; borondatea da garrantzitsuena.

Euskara zaila dela esaten du jende askok. Zuri zer iruditzen zaizu?

Euskara oso zaila da. Nik latina edota grekoa ikasi izan ditut, eta horiek ere euskara baino errazagoak dira. Ni, seigarren mailan hasi nintzen, eta hasiera gogorra egin zitzaidan. Urte baten lau kurtso egin nituen, eta gero EGA taldean sartu nintzen. EGA taldean maila oso altua zegoen, eta niretzako gauza berrirako zeuden: sinonimoak, berridatziak... Hasieran oso galduta ibili nintzen, baina politik-poliki hartu nuen maila. Azkenean hirugarren profila atera nuen, (EGArekin baliokidea) baina titulua lortu arren, beste urtebete egin nuen euskaltegian, oraindik ez nuelako ikusten nire burua ondo hitz egiteko prestatuta.

Euskaltegira joateaz gain, Elgoibarko Izarratik ‘Tertuliak’ egitasmoan izena ematea erabaki zenuen. Zergatik?

Euskara ikasten hasita, argi neukan amaieraraino iritsi behar nuela. Hasieran euskaltegiko ordukin nahikoa izan daiteke. Asteaz bi edo hiru ordu joatea ondo dago, baina aurrera joan ahala hori ez da nahikoa. Euskaltegitik kanpo ere euskara praktikatzea beharrezkoa nuela konturatu nintzen. Irratia edo telebista euskaraz entzutea edo euskaraz irakurtzea beharrezkoa da. Baina garrantzitsuena hitz egitea da, eta horregatik hasi nintzen *Tertuliak* programan. Talde arduradun oso onak izan nituen eta gustura ibili nintzen.

Euskaldun berri bezala hasi zinen ‘Tertuliak’ egitasmoan, eta gaur egun, euskaldun zahar bezala diharduzu beste batzuei laguntzen.

Bai, bi aldeetan egon naiz ni. Talde arduradun izateko aukera eskaini zidaten, eta baietz esan nuen. Alde batean edo bestean egotearen desberdintasuna ez da ho-

rren handia. Azken batean, berba egiteko elkartzeko gara. Ez da klase bat, eta ez gara etengabe akatsak zuzentzen ibiltzen. Gomendioak ematen ditugu gauzak hobeto esateko, baina helburua euskaraz hitz egitea da. Edozein gairi buruz hitz egiten dugu, une bakoitzean tokatzen dena. Garrantzitsuena lotsa galtzea eta hitz egitea da, eta *Tertuliak* egitasmoak asko laguntzen du. Nik nabaritu dut alde. Nire taldeko batek sekulako pausoa eman du. Euskara ikasten ari den jende guztia animatuko nuke *Tertulietan* parte hartzera.

Lotsa izan daiteke euskaraz hitz egiteko oztopo nagusietako bat?

Bai, dudarik gabe. Jende askok badaki euskaraz, baina akatsak egiteko beldurrez ez du hitz egiten. Argi dago akatsak denok egiten ditugula, baina garrantzitsuena elkar ulertzea da. Hau ez da azterketa bat, eta inportanteena praktikatzea da.

Elgoibar herri euskalduna iruditzen zaizu?

Bai, baina arazoa da jendeak ez duela euskara erabiltzen. Oraingo gazteek denak dakite euskaraz, baina gero ez dute egiten. 2 urterekin hasten dira eskolan eta dena euskaraz jasotzen dute, hortaz, jendeak jakin badaki *Tertuliak* egitasmoak horretan laguntzen du, euskararen erabileran. Hizkuntza ohiturak aldatzea ere inportantea da. Nik badauzkat lagunak gaztekeraz ezagutu ditudanak, eta biok euskaraz jakin arren, gaztekeraz berba egiten dugu. Beste batzuekin euskara hutsiko harremanak ditut.

“Euskara ikasle guztiak animatzen ditut Tertulietan parte hartzera”

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Txarrera ez du egingo. Jende gazteak dauka euskararen etorkizunaren giltza, eta beraiek dira euskara bultzatu behar dutenak. Denak dakite euskaraz, eta nire alabaren koadrilan behintzat, euskaraz egiten dute.

JAMAL-EDDINE BARHONE (Maroko)

“Etorkinen alde egiteko alderdi politiko bat sortu nahi dut”



Jamal-Eddine Barhone Stitou, “Juan” laguntzat, bereber jatorriko 30 urteko marokoarra da, Tetuangoa. Ingeniaritza kimikoko ikaslea eta tabernaria da. Azken Udal Hauteskundeetan hauteskunde mahaietan egon zen, eta “funtzionatzen duen demokrazia batean” parte hartzea zirrargarria eta pozgarria izan dela aitortu du. “Nire botoa aintzat hartu dutela sentitu dut estreinakoz”, dio. Etorkinek dituzten arazoei konponbidea eman eta bertakotzen laguntzeko alderdi politiko bat sortzea da Jamalen ametsa.

Zenbat denbora daramazu Elgoibarren?

Frantzia ingeniarietza kimikoko ikasketak bukatu ostean, doktoretza ikasketak egitera etorri nintzen, duela zazpi urte, Elgoibarrera. Lehen urteak hizkuntza ikasten, nire egoera legezatzten eta bizimodua atera ahal izateko lanean pasa nituen. Elgoibarko Zaharren Egoitzan hasi nintzen beharrean, taberna batean zerbitzari gero, eta duela bi urtetik hona neu naiz tabernako ugazaba. Arrazoi bategatik edo besteagatik, doktoretzarena atzeratuz joan zen. Orain master bat egiten ari naiz Donostian eta doktoretza amaitzeko, tesia idaztea falta zait. Polimeroei buruzkoa da. Orain arte inork landu ez duen alor bat ikertzen ari gara, eta uste ditugun emaitzak lortuz gero, sekulako berrietasuna izango da. Kutsatzen ez duten pintura eta itsasgarriak lortu nahi ditugu.

Hauteskunde mahai batean egotea tokatu zitzaizun Udal Hauteskundeetan. Bertako askok “zorte txartzat” hartuko luketena ez da hala izan zuretzat, ezta?

Espainiar nazionalitatea lortu dudanez, hauteskunde mahaietan egoteko zozketan sartu nintzen eta halaxe tokatu zitzaidan. Goizaldeko 7:00ak arte tabernan lanean egon niontzen arren, 8:00etan puntuan nire betebeharra bete eta demokrazian parte hartzeko desiratzen nengoen. Egun pozgarria izan zen. Nirea ez den herrialde batean demokraziaren funtzionamenduan parte hartzeko aukera izatea izugarria da. Marokon ere egona naiz hauteskunde mahai batean, aita zinegotzia zen-eta, baina oso bestelakoa izan zen.

Bi herrialdeetako hauteskunde prozesuak alderatzeko aukera izan duzu.

Bai. Gertutik ezagutu ditut biak eta ez daukate zeri-kusirik. Marokon mila gauza susmagarri gerta daitezke. Hasteko, boto kutzak ez dira gardenak. Eta are larriagoa dena, edozein unetan desagertu daitezke. Neure begiekin ikusi nuen nola eramaten zuten kutxa bat beste gela batera botoak kontatzean. Nork daki zer egin zuten botoekin? Ez dago garden-tasunik, eta ez naiz fio ikusi ezin dudanez. Horrez gain, boto erosketak eta mehatxuak ohikoak dira, tamalez, oraindik. Arabiar herrialdeetan oso ezaguna da %99 portzentajea: agintean dagoen alderdiak hauteskundeetan atera ei duen emaitza sinesgaitza.



Hemen, aldiz, nire iritzia aintzat hartua izan da, nire botoak balioa duela egiaztatu dut. Handia da gero hori!

Demokraziaren aterkipean bizi garenok ez dugu, beharbada, daukaguna behar beste estimatzen?

Hala dela uste dut. Horren harira, ez ditut oso ondo ulertu Maiatzaren 15eko mugimenduko kideek, “haserretuek”, Espainiako hiriburu nagusietan egin dituzten protestaldiak. Ez zait protesta egiteko modurik egokiena iruditu, gehiegizkoa begitandu zait. Daukatenaz jabetzeko Marokon edo Algeria urtebetez bizi beharko lukete “haserretu” horiek. Nahiko nuke Marokon hemen daukagun demokrazia balute.

Politikan interesatuta zaudela nabari zaizu.

Halaxe da. Alderdi politiko bat sortzea gustatuko litzaidake. Politikan sartuta etorkinei bertakotzen lagun diezaiekedala uste dut. Euren eskubideen alde eginez, batetik, baina baita hemengo errealitatea azalduz ere, etorkin asko bere baitan itxi egiten direlako, eta ez dute ezer jakin nahi bizi diren lekuaz. Lagundu dezakezula uste baduzu zure esku dagoena egin behar duzu. Hori da aitak irakatsi zidana.

Horrelakorik egiteko aukerarik izango zenuke Marokon?

Otsailaren 20tik hona egoera asko aldatu da Marokon. Arabiar herrialdeetako errebolten ostean adierazpen askatasun handiagoa dago. Aldaketak Marokora ere ailegatuko diren beldur dira agintariak, eta soka zertxobait lasaitu dute. Alabaina, agintea eskuetan dute oraindik. Errebolta haizeen aldekoak uste baino gutxiago direla ikusi dute, eta ez dute zartaginaren kirtena askatu. Marokoko erregeak konstituzio berria prestatzen ari direla esan du, eta alderdi guztiak aldaketarik ekarriko duen ikusteko zain daude. Askatasunak badakartza onartuko dute, eta hala ez bada, oldartu egingo direla uste dut. Askatasunak exijitzeko une ezin hobea da.

“Udal Hauteskundeetan eman nuen botoa aintzat hartua izan dela egiaztatzea handia izan da”

Zer da, zehazki, marokorrek eskatzen dutena?

Ez dugu dirurik edo lanik eskatzen, askatasuna baizik. Libiak edo Algeriak gasa eta petrolio moduko baliabide natural asko dituzte, baina aberastasun guztia esku bakar batzuetan, agintarienean, pilatzen da. Marokok ez dauka horrelako aberastasunik eta, hala, herritarrek 400 euroko batez besteko soldata herrialdeari dagokiona dela uste dute. Ez dut uste alde horretatik kexu direnik. Lanik ere ez da falta, langabezia tasa %9koa baita. Soberran daudenak krudelkeria, ustelkeria eta beldurra dira.

Tunez, Egipto, Libia, Siria... Nola bizi izan dituzu Arabiar herrialdeetako errebolta?

Kultura eta erlijioaz gain, gauza batek bartzten ditu herrialdeok: beldurrak. Jainkorik ez dagoela errazago sinistuko zuen jendeak egunen batean presidente horiek alde egingo zutela sinistu baino. Pentsa zer den hori musulman batentzat. Egoera aldatzea ezinezkoa zela uste zuten eta beldur ziren pentsatzen zutena ozen adierazteko. Tunezen gertatutakoa sua piztu suten txingarra izan zen. Erreboltaiek 21 egunen ostean presidentea kargutik kentzea lortu zutela ikusi zuen jendeak, eta azukre koskor bat kafesnetan moduan desagertu zen beldurra. Pentsatzen zutena esateko beldur izatetik, bizia galtzeari beldurra galtzeara pasa ziren. Europako gobernuek eta Ameriketako Estatu Batuetakoak diktadorei bizkarra eman izanak asko lagundu zuen. Izan ere, herrialde horietako jendeak beti uste izan zuen diktadoreen bizkartzainak zirela horiek eta ez zutela zereginik euren agintarien aurka altxatuz gero. Funtssezkoa izan da nazioartetik jasotako babesa.

Asier Orbea



Ingeniaritza kimikoko ikasketak amaitzen ari da Jamal Donostiako Unibertsitatean.

HEMEN DIRA TRINITATEAK



Iritsi dira aurtengo Trinitate jaiak, eta azken urteotako ohiturari jarraituz, egitarau zabala prestatu dute. Azoka, herri kirolak, nagusien eta umeen danborradak eta beste hainbat ekintza izango dira asteburuan. Hortaz, musikak, dantzak, danbor hotsak, artisautzak eta feriak bat egingo dute asteburu honetan Elgoibarko kaleetan. Egitarau osoa agendan aurkituko duzue.

Ainhua Andonegi

Danbor hotsa izango da nagusi herriko kaleetan asteburuan zehar. Zapatuan, nagusien danborradakoek hartuko dituzte kaleak, eta, domekan, umeen danborrada egingo dute.

Nagusien danborradako gaia industria izango da aurten, eta herriko langileei eskainita egongo da. Besteak beste, josteko makinekin, erreminta makinan edo forjan lan egin dutenak omenduko dituzte.

Aurten hogei barrika berri irtingo dira kalerara, eta soldaduentzako 74 txapel ekarri dituzte. Horrez gain, bihar bertan jakinaraziuko duten sorpresaren bat ere izando du aurtengo danborradak.

23:30ean hasiko da nagusien danborrada Plaza Handian. Sukaldariak, soldaduak, gastadoreak eta gainerako partaide guztiak egongo dira han, eta hainbat pieza jo ostean, herriko kaleak zeharkatuko dituzte Madalara arte. Handik Plazara itzuliko dira berriro, eta 1:45 inguruan amaituko da ikuskizuna.

Umeen danborrada

Domekan umeen txanda izango da. 12:00etan kolore zuri-urdina hartuko du Plaza Handiak, eta handik abiatuko da umeen danborrada. Urtero bezala, karroza ikusgarria prestatu dute Inazio Bereziartua musika

eskolako arduradunek, baina domekara arte itxaron beharko da horren berri jakiteko. Guztira 300 lagun inguruk hartuko dute parte.

Umeen danborrada ez da izango Inazio Bereziartuak Trinitate jaietarako antolatu duen ekintza bakarra. Zapatu goizean musika eskolako txistularien eta trikitilarien kalejira egingo dute, eta, arratsalderako, dantza saioa prestatu dute. 18:00etatik aurrera, beraz, dantza ikuskizuna eskainiko dute Plaza Handian (euria egiten badu, kiroldegian). Azkenik, 20:00etarako Zarauzko parrokiako abesbatzaren kontzertua antolatu dute, San Bartolome parrokiaren.

Industriako langileak omenduko ditu nagusien danborradak zapatuan. Umeen danborrada domekan egingo dute, eta 300 lagun inguruk hartuko dute parte.



Herri kirolak, zapatu eguerdian

Trinitate jaietako aurtengo berrikuntza herri kirolen erakustaldia izango da. Udal Kirol Patronatuak antolatuta, punta puntako kirolariak batuko dira bihar eguerdian Plaza Handian (euria egiten badu Ikastolako frontoian egingo dute saioa).

Alde batetik aizkolariak arituko dira lehian. Donato Larretxea, Jesus Zelai II, Jesus Mari Mujika, Julen Mendieta, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Floren Nazabal. Bikoteka lehiatuko dira, indartsuena nor den erakusteko. Floren Nazabal egungo aizkolari onena kontsideratua dago, baina gainerakoek ez diote jokoa erraz ipiniko. Bihurri mendararra, bestalde, Afganistanen bukatu berri duen abentura batetik bueltan iritsiko da Elgoibarrera.

Harrijasotzaileen artean, bestalde, Goenatxo eta Landarbide arituko dira nor baino nor, harriak leporaino altxatzen.


Azkenik, Ana Berasategik lastoa altxatzen eta ingudearekin egingo du lan.

Herri kirolak izango dira aurtengo berrikuntza

ARTISAU AZOKA, DOMEKAN

Artisauen unea domeka goizean iritsiko da. 10:30etik 14:30ak aldera arte denetarik eskulanak ikusteko aukera izango da Leku Eder parkean. Aurten, Euskal Herriko 24 artisauk hartuko dute parte azokan, eta denetarik produktuak ekarriko dituzte: bitxiak, egurrean eginiko lanak, koadroak, pilotak, zeramika... Artista horien artean, zazpi elgoibartarrak izango dira.

- **Susana Abad:** Bitxiak.
- **Domingo Miquel:** Egurrezko lanak.
- **Izaro Etxegibel:** Eskulanak.
- **Antxon Fresnedo:** Itsas korapiloak.
- **Arturo Andrade:** Lutheria tailerra.
- **Emi Nogales:** Margoak.
- **Egur tailerra:** Margoak eta esmaltea.



TRINITATEETAKO AZOKA BEREZIA, ZAPATUAN

Elgoibarko baserrietako produktuak eta abereak izango dira Trinitateetako azoka bereziko protagonistak, bihar, 9:00etatik eguerdi aldera arte. Horrez gain, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere izango dute azokara hurreratzen direnek: oilasko lumagorria, basatxerri haragia.

ABEREAK

- **Arizti Txiki:** Pirenaika.
- **Berdeskunde:** Pirenaika.
- **Garate:** Pirenaika.
- **Basueta:** Limusinak eta astoak.
- **Ziarda Txiki:** Limusinak.
- **Ziarda:** Limusinak.
- **Orube:** Mestizoak.
- **Lekunberri:** Mestizoak eta astoak.
- **Zulueta Bekoa:** Blondak.
- **Irunaso:** Betizuak, ardiak, pottokak...
- **Akei:** Enkarterrietako astoak.
- **Aldazelai:** Behorrak.
- **Garate:** Montako zaldia.
- **Txillarre:** Montako zaldia, angloarabea eta apalussa.
- **Irunaberri:** Pottokak.
- **Aozar:** Txerriak eta oilaskoak.
- **Mausitxa:** Ardiak.
- **Sagarraga:** Ardiak.
- **Azkarate:** Ardiak.
- **Iriarte:** Ahuntzak, antzarrak, poniak...
- **Iriarte Etxeberri:** Poniak...
- **Artazo:** Idiak, zaldia.
- **Urruzuno Haundi:** Ahuntzak, hegaztiak.
- **Ertzil:** Txerriak.

BASERRIETAKO PRODUKTUAK

- **Zabaleta:** Barazkiak.
- **Mausitxa:** Gazta.
- **Lizundia Txabola:** Gazta, ogia, intxaurreak.
- **Ertzil:** Gazta.
- **Mintxeta:** Gazta
- **Basueta:** Barazkiak, gazta, esnea...
- **Eguen Txiki:** Barazkiak

Mikel Olaizolak Plazatik Gaztetzera bertso txapelketan hartuko du parte

Saioa gaur izango da, 22:30ean, gaztetzean



Plazatik Gaztetzera bertsolari gazteen txapelketako Elgoibarko kanporaketa jokatu-ko dute gaur gauean, gaztetzean, eta bertan, Mikel Olaizola elgoibartarrak hartuko du parte. 20:30ean afaria egingo dute, eta bertso saioa 22:30ean hasiko da. Mikel Olaizolarekin batera, ondorengo bertsolariek hartuko dute parte: Ander Solozabal, Beñat Iguaran, Asier Aspiroz, Peru Vidal eta Adur Gorostidi.

Mendaron, datorren astean

Ekainaren 25ean, bestalde, Mendaroko kanporaketa jokatu-ko dute, Mendaroko gaztetzean. Aitzol Urain mendaroarrarekin batera, ondorengoek hartuko dute parte: Mikel Artola, Axier Aspiroz, Maddi Gallastegi, Ander Zulaika eta Hodei Iruretagoiena. Gai jarzaille lanak Maialen Olazabal mendaroarrak beteko ditu.

Hilabete barru kaleratuko du estreinako diskoa Napoka Iria bikoteak



Napoka Iria bikoteak (Ander Mujika eta Miren Narbaiza) hilabete barru kaleratuko du estreinako diskoa, eta buru belarri arituko dira aurrerantzean diskoa aurkezteko kontzertuak eskaintzen. Joan zen asteburuan eman zuten kontzertua Bikustik taldearekin batera, eta herritar ugari batu ziren Madalako parkean. Herritarren aurrean jotzea ez dela erraza aitortu du Napoka Iria taldeko Ander Mujikak, baina kontzertu berezia izan zela adierazi du. Bikustik taldearekin batera jo zituzten abestiak nabarmendu ditu musikari elgoibartarrak. Era berean, Bikustik taldearen zalea dela adierazi du, eta Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta musikari handiak direla azaldu du. Musika zaleak gustura geratu ziren Madalako kontzertuarekin.

San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Kultura Sailak San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Aurten 700 euroko sari bakarra banatuko dute. Irudiak egiteko teknika librea da, baina kartelean ezinbestez azaldu beharko da ondorengo testua: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2011*. Interesatuak uztailaren 6ra arteko epea dute lanak entregatzeko. Informazio gehiagorako Kultura Sailera jo daiteke (943 742 158).

Koelho 104 taldeak Nafarroako Konkistaren musika bilduman parte hartu du

Koelho 104 talde elgoibartarrak Nafarroako Konkistaren musika bildumarako *Mecaguen* abestia grabatu du. 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenak ekoiztu du diskoa, eta Euskal Herriko 17 talde eta bakarlarik hartu dute parte. Ekainaren 15etik salgai dago diskoa.

Kaleetako hizkuntza erabilera neurtzeko jendea behar da

Soziolinguistika Klusterrak kaleetako hizkuntza erabilerekin neurtzeko egongo du, eta horretarako jendea behar du. Neurtzaile izateko eskaera epea, beraz, zabalik dago. 18 urte beteta, eta unibertsitate, Lanbide Heziketa edo baldikideren bat izatea eskatzen da. Lana irailaren 21etik urriaren 29ra bitartean egin beharko da. Neurtzaileek 300 euroko ordainsaria eta dieta gastuak jasoko dituzte. Interesatuak ondorengo helbide elektronikoetara bidali beharko dute izena eta kontakturako telefono zenbakia: o.altuna@soziolinguistika.org / b.uranga@soziolinguistika.org. Informazio gehiagorako www.soziolinguistika.org webgunera kontsultatu daiteke.

‘Elgoibar bi erroberatan’, handituz doan tropela

Marka guztiak hautsi ditu *Elgoibar bi erroberatan* bizikleta irteeraren azken edizioak. Ia 400 lagunek egin zuten Sallobente-Er-muaranera joan-etorria bizikleta gainean, joan den domeka goizean. Distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzeko antola-tzen du irteera Herri Eskolako Kalamua gurasoen elkarteak, eta, era berean, bizikletentzat ibilbide egokiak eskatzeko. Guraso-ek seme-alabekin goiz pasa eder bat egiteko aitzakia ere bada *Elgoibar bi erroberatan* irteera. Plaza Handitik abiatu ziren guztiak eta plazara itzuli zirenean freskagarriekin eta txorizo egosiarekin berreskuratu zituzten indarrak. Aurten, gainera, Molto motorrentzako eta trizikloentzako ibilbide berezia prestatu zuten antolatzaileek. Aurten animatu ez direnak datorren urtean izena ematera animatu nahi di-tuzte antolatzaileek. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko sartu www.elgoibarren.net helbidean.



Datorren barixakuan egingo dute Nahaste Borraste proba

16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte

Kimetz elkarteak antolatuta, datorren barixakuan (ekainak 24) egingo dute Nahaste Borraste proba. 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena, eta bakoitzak hiru probatan lehiatu beharko du: Lehenik, bizikletan; ondoren, 25 kiloko zakua lepoan hartuta egin beharko dute korrika, eta azkenik zakurik gabeko lasterketa. Proba 19:00etan hasiko da Plaza Handian eta egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera.



Piriniotara irteera antolatu du Morkaikok

Ekainaren 25-26 astebururako Piriniotara irteera antolatu du Morkaikok. Zapatuan Hiru Erregeen Mahaia mendira igoko dira, eta domekan, Txipeta mendia egingo dute. Antolazailleek bi bide jarri dituzte aukeran, beraz, nahi duenak ibilbide errazagoa aukeratzeko aukera izango du. Izena emateko epea zabalik dago, eta plazak mugatuak direla jakinarazi dute Morkaikokoek. Gehienez, 50 lagunentzako lekua dago. Bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakok 55 euro. 26 urtetik beherakoentzako prezioa 40 euroko izango da.

90 lagunek hartu zuten parte spinning maratoian

Mintxetako igerilekuen denboraldia es-treinatze spinning maratoia egin zuten joan zen zapatuan, eta 90 lagunek hartu zuten parte. 11:00etan hasi zen maratoia, eta 45 minutuko hiru txanda egin zituzten. Era berean, gaur arratsalderako gluteoak, abdominalak eta izterrak lantzeko saio bat prestatu dute. 18:00etan hasiko da, eta Argiñe Gabilondo eta Elena Silvak gidatuko dute saioa.

Eguraldi ona lagun, herritar asko joan ziren zapatuan igerilekuetara, udaldiko lehenengo bainua hartzera. Gogoratu, Mintxetako igerilekuak irailaren 11ra arte egongo direla zabalik.



Amaitu da Lagunak Pilota Txapelketa



Joan zen barixakuan jokatu zituzten Lagunak Pilota Txapelketako finalak Plaza Handian. Herritar ugari batu ziren frontoi inguruan, eta pilota ikuskizun polita eskaini zuten pilotariek. Ondorengoak izan ziren emaitzak:

Beraza 12 - Maiora 18 (Aurre-benjaminak)
 Iriondo 16 - Fernandez 18 (Benjaminak)
 Astigarraga 11 - Beraza 18 (Alebinak)
 Uruzola 18 - Loidi 14 (Infantilak)

Gaztetxoentzako judo txapelketa antolatu dute domekarako

110 lagun inguruk hartuko dute parte



Menorkako ikastaroan ateratako erretratu.

Egokran judo taldeak antolatuta, judo txapelketa egingo dute datorren domekan (ekainak 19). 10:30ean hasiko da txapelketa Olaizaga kiroldegian, eta 5etik 11 urtera bitarteko umeek hartuko dute parte. Besteak beste, Donostia, Lezo, Urnieta, Irun, Usubil eta Elgoibarko umeak etorriko dira. Guztira 110 ume inguru espero dituzte antolatzaileek. Egokran taldekoen helburua judoa sustatzea da.

Egoitz Mora, Menorkan

Bestalde, Egoitz Mora judoka elgoibartarra Menorkan izan zen joan zen astean. Ikastaro bat emateko gonbidatu zuten elgoibartarra.

Lau t'erdiko finalak, gaur, 19:00etan Plaza Handian

10 Bai taldeak antolatutako lau t'erdiko pilota txapelketa iritsi da amaierara, eta gaur arratsaldean jokatuko dute final nagusia: 19:00etan hasiko da partida Plaza Handian, eta Agirrebeña eta Iñaki Beraseta izango dira aurrez aurre.

Urpekaritza bataioak

Urbizi taldeak urpekaritza bataioa antolatu du biharko. 9:30ean hasiko da ekitaldia, eta 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Izena emateko 607 530 461 telefonora deitu.

Futbol 7 txapelketa, Mendaron

Mendaroko Gazte Asanbladak Futbol 7 txapelketa antolatu du uztaileako. Interesetauek Haitz Beltz tabernan eman dezakete izena. Txapelketa uztailean jokatuko dute, eta finala hilaren 23an izango da.

Markel Kerexeta garaile, Eskolarteko Xake Txapelketan



Joan zen domekan jokatuta zuten Eskolarteko Xake Txapelketa, eta Markel Kerexeta izan zen irabazlea. Hauxe izan zen sailkapena: Markel Kerexeta, Urko Iriondo, Paul Fernández, Josu Uncilla, Uraitz Iriondo, Jon Astigarraga, Kevin Sandoval eta Luis Sandoval. Bestalde, aste-buru honetan Leioan hartuko dute parte Mekatar xake taldekoek.

Sanloko alebinek Kantabrian jokatu zuten asteburuan



Sanloko alebin taldeko 22 jokalarik lagunarteko txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan Camargon (Kantabria). Hamabost minutuko hamabi partida jokatu zituzten, Kantabria, Oviedo, Palentzia, Iruña eta Ermuko taldeen kontra. Olatz Gil, Lara Urain eta Ion Sanchez begiraleekin batera, gurasoak eta zaleak ere joan ziren Kantabria aldera.

LANA

ESKAERA

- Emakumea abuztuan edozein lan egiteko prest. ☎ **688 806 348**
- Emakumea lan egiteko prest. ☎ **656 946 074**
- Udan, umeak zaintzeko prest, goizetan. ☎ **630 700 272**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **689 658 471**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo, pertsona nagusiak nahiz umeak zaintzeko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **689 658 471**
- Emakumea garbiketa lanak egin, edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **646 506 777**
- Emakumeak garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **663 115 241**
- Neska lan bila dabil, nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea pertsona helduak zaintzeko prest. Espe- rientzia eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ **699 813 826**
- Emakumea gauzez pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **689 273 664**

ESKAITZA

- Zerbitzari euskalduna behar da jatetxerako. ☎ **943 121 262**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **608 474 923**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **689 847 947 / 676 602 481**
- Benidomeko erdigunean apartamentua alokairuan. Aire egokitua, eroso eta auzokideentzako igerilekua. ☎ **943 74 06 28**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariek. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**
- Etxebizitza alokatzen dut Deban, uda denboraldira- ko. ☎ **680 560 981**
- Gizonezkoak logela hartuko luke alokairuan. ☎ **648 787 786**
- Etxea salgai, prezio interesgarrian. ☎ **688 658 183**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 420 642**
- Emakumeak pisua hartuko luke Elgoibarren alokai- ruan. ☎ **698 390 818**
- Neskak bi logelako pisua hartuko luke alokairuan El- goibarren. ☎ **626 641 318**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, ate automatiko- arekin. ☎ **663 409 726**

AUTOAK

- Mercedes Vito furgoneta salgai, wesfalia eta abantze berriarekin. 16.000 euro. ☎ **665 708 756**

BESTELAKOAK

- Taberna traspasatzen da San Frantzisko kalean. ☎ **687 051 789**
- Bigarren eskuko *kuatrozikloa* (gida baimenik gabe gi- datzeko autoa) erosiko nuke. ☎ **699 706 798 (Nerea)**
- Elene izena daraman umearen urrezko eskumuturre- koa galdu dut. Oso estimatua nuen, mesedez aurkitu duenari Udaltzaingoa uzteko eskatzen diot.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Adin guztien- tzako ematen dira klaseak, haur, gazte eta helduentza- ko. ☎ **670 793 312**

OKINDEGIA 19 domeka FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

17	Etxeberria (Santa Ana)	20	Garitaonandia-Bidasolo	Fernandez	Ibañez- Rekalde, 1	Zabaleta- Kalebarren, 9
18	Fernandez	21	Etxeberria (Santa Ana)	Herriko enparantza 4,	(Soraluze)	(Soraluze)
	Goizez: Yudego	22	Fernandez	Garagartza (Mendaro)	Tel: 943 751 638	Tel: 943 751 384
19	Fernandez	23	Yudego	Tel: 943 756 142		
		24	Ibañez			

Gorputzeko SpA Aromatique

Ametsetako mango-esfoliazioa



Modelatze erreduktorea, cinarizko olioeekin, zelulitisagutzitzeko



Bilgarri dramatzailea, anana eta pomelo extraktekin





Benetan zure gorputza modelatzen duen tratamendua

Modelazio eta erreduktore tratamendua, esentzia erreduktoreekin

Erlaxatzeko tratamendua, esentzia erlaxagarriekin.

Tratamendu zirkulatorioa hankak arintzeko, esentzia zirkulatorioekin.

Garbine

Estetika

P.M. Uruzuno, 27
Tel.: 943 74 31 32

Tratamenduak egiteagatik opari bat emango dizuegu! Auzoak zaituzte!



• Zorionak, **Laia**, zure lehenengo urtebetetzeari. Amona, aittitta, guraso, eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Mari Carmen!** Ahizpa Cati eta, Laura, Diana eta Patricia biloben partez.



• Zorionak, **Pedro**, igandean 10 urte beteko dituzulako. Muxu asko gurasoen, eta, bereziki, Victoriaren partez.



• Zorionak, **Miren**, igandean 14 urte egin dituzulako. Aittitta, bi amama eta etxeko guztien partez. Muxu handi bat!



• Zorionak **Maddi** txapeldunari, bihotz bihotzez. Guraso bertsozale baten partez.



• Zorionak, **Oihanel** Ondo pasa zure eguna! Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Liertxo**, gure etxeko kurruxkori. Muxu handi bat zure lehenengo urtebetetzeari.



• Zorionak, **Marek**, gaur 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat denon partez.




• Zorionak, **Paula**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien, eta, bereziki, Sararen partez.



• Zorionak, **Malen!** Jada, 2 urte! Bi muxu potolo, familiako, eta, bereziki Intza, Naia, Haizea eta Harrieten partez.



• Zorionak, gure **Naroari!** Ondo pasa zure urtebetetze eguna! Senideen partez.



• Zorionak, gure **Ander**, domekan 12 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat. Zu beti izango zara gure Ander.



• Zorionak, **Malen** polit hori, igandean 5 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko denon partez, eta, bereziki Garaziren partez.



• Zorionak, **Markel**, zure laugarren urtebetetzeari. Oso ondo pasa! Denon partez.

OSPAKIZUNAK TXAPELDUNAK



Egindako ahaleginak eman ditu bere fruituak! Zorionak, gurasoen partez.

Erretratu bakarrekogurra: 3 €.

Argazki bikoitza: 5 €.

Hirukoitza: 7 €.

Hiru lagunetik

gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora

12:00ak baino lehen,

edobarren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.



Ekainaren 22an gure inguruko zuhaitzak eta landareak ezagutzeko irteera!
Izenematea, Ludotekan!

Udako programazio berezia abian da!

Izenematea zabalik dago!

Etorri Gaztelekura ekintzen berri jakiteko!



17 barixakua

Asto-kaka

19:00 Asto-kaka jokoaren aurkezpena
Kultur Etxe aurrean.

18 zapatua

Kirola

9:30 Urpekaritza bataioa

19 domeka

Kirola

10:30 Judo txapelketa
Olaizaga kiroldegian.

23 eguena

Sariak

12:00 IMH sariak
IMHn

TRINITATEAK (Madalako jai batzordea)

17 BARIXAKUA

22:30 **Plazatik gaztetxera.** Bertso saioa, gaztetxean. 5 eurotan eros daitezke afaritarako tiketak.

18 ZAPATUA

11:00 **Elgoibarko sagardo**

dastaketa. Leku Eder parkean.

20:00 **Trikipoteoa.** Plaza Handitik


abiatuta, Amaia Agirre eta Jokin

Labaien bertsolariekin.

Gauean, 'Burua erabili' festa.

Gaztetxean. Buruan zerbait eraman behar da: txapela, ileordea, diadema, zapia...

2:00 **Erromeria.** MP5 taldearekin, gaztetxean.



TRINITATEAK ELGOIBARREN

17 BARIXAKUA

17:30 **Kiribilka**

Leku Eder parkean

18 ZAPATUA

10:00 **Trinitateetako azoka berezia.** Leku Ederren eta Plaza Txikian.

10:30 **Kalejira.** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilari eta txistulariekin.

12:00 **Artile mozketa.** Nafarroa Plazan.

12:00 **Kale kantariak.** Nafarroa Plazan.

12:30 **Herri kirolak.** Aizkolariak eta harri jasotzaileak. Plaza Handian.

18:00 **Dantza jaialdia.** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia. Plaza Handian. Euria egiten badu, kiroldegian.

20:00 **Kontzertu sakroa.** Zarauzko parrokiako abesbatzak eskainiko du, San Bartolome parrokian.

23:30 **Nagusien danborrada.** Plaza Handian.

19 DOMEKA

Trinitate Eguna

9:00 **Diana.** Udal txistulari taldearekin.

10:30 **Artisau Azoka.** Leku Eder parkean.

11:00 **Meza nagusia.** Parrokiako abesbatzarekin, San Bartolome parrokian.

12:00 **Haurren danborrada.** Plaza Handian.

17:30 **Dultzaineroen kalejira.** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

TRINITATEAK MENDARON

18 ZAPATUA

17:00 **Zuhaitz jasotzea**

Ondoren, Kalejira. Bizi-Poza txarangarekin

19 DOMEKA

Trinitate Eguna

10:00 **Kalejira.** Txistulari taldearekin.

11:30 **Meza nagusia.** Elizako abesbatzak eta Ameikutz musika eskolakoek hartuko dute parte.

Ondoren, txistulariak. Ospas eta Sabin trikitilarekin.

12:30 **Herri Kirolak.** Harrijasotzailea: Juan Jose Unanue *Goenatxo II.*

Trontzalariak: Andoni Zubiaurre *Gorixo* eta Noelia Suarez / Unai Salegi
Sarobe eta Sonia Garzia. Lokots bilketa: Jon Larrañaga eta Gotzon Zulaika.

20 ASTELEHENA

11:00 **Meza santua.** Trinidadeko basilizan.

12:00 **Ikastolako bertso saioa**

Ondoren, hamaiketakoa, Laja eta Landakandarekin.

14:30 **Herri bazkaria.** Toki Alai jatetxean.

20:30 **Herri afaria.** Laja eta Landakandarekin, Aizpe elkartean.

SAN JUAN JAIK ALTZOLAN

23 EGUENA

San Juan bezpera

14:30 **Kanpai-jotzea** eta txapliguak botatzea

20:00 **Salbea** eta parrokiako organo berriaren inaugurazioa

20:30 **San Juan arbola** jartzea

23:00 **San Juan sua,** eta, ondoren, dantzaldia

24 BARIXAKUA

San Juan eguna

7:00 **Atarietan adarrak** jartzea

12:00 **Meza santua**

13:00 **Herri kirolak**

17:30 **Kiribilka**

19:00 **Parrillada** eta dantzaldia

25 ZAPATUA

San Juan txiki

11:00 **Haurrentzako jolasak**

13:00 **Zinta lasterketa**

15:00 **Herri bazkaria**

18:30 **Zezentxoak** eta poniak

20:00 **Dantzaldia**

23:00 **Dantzaldia**

26 DOMEKA

12:00 **Meza santua**

12:30 **Herri jolasak**

13:00 **Herri kalejira**

17:00 **Mus txapelketa**

18:00 **Zezentxoak** eta poniak

19:00 **Txokolatada** eta azken traka

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Creditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txaranga amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Pasta-entsalada
- Okela gisatua patatekin edo espinaka-lasagna
- Ijito-besoa
- Kafea
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura (barra-zerbitzua ere izango da)

- Bazkariko txartelak Elgoibarko Izarran daude salgai (izena ematerakoan bigarren platera zehaztu behar da)
- Izena emateko azken eguna: uztailak 15 (ostirala)
- Informazio gehiago: 943 741 626 (Mikel) elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

18 €

16 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA